

143 agai



Jakoba Errekondo
mandio@zerain.eus

Arbolari bezalaxe zuhaitzari agai jarri eta adarrei goian eustea kultura da. Jakintza handia, kultura. Bestela adarrak hautsita eta desitxuratuta, zarrapastroso litzatekeen landare tzarrari lagundu, eta era berean etorkizun berri bat eman. Kultura: landu. Hazten lagundu. Zenbaitetan baita zeharo bestelakoa izango den landare bat izateraino ere. Bere bueraz beste landare bat egiten dugu.

Adibide polita bezain ikusgarria dute Formenteran. Ikusgarria bai, benetan, bisita bat merezi duten horietakoa. Makina bat gauza kaxkarrago ezagutzeko asmoz mugitzen gara urrutirago... "Na Blanca d'en Mestre" du izena, eta pikondo bat da, *Ficus carica*. Es Pla d'en Mestren bizi da; ehunen bat urte ditu, eta 356 metro koadroko itzala egiten du.

Pikondoa indarrean etortzen den arbola da; behin itsatsita, azkar hazten den horietakoa. Baina egur makala du, ahula, maskala. Azkar hazten delako ala azkarrago hazi nahi duelako? Zein ote

"Na Blanca d'en Mestre", Europako pikondorik handiena omen dena.



ETHMATEO

egur gogorra ez egitearen arrazoia? Batetik, egur sendo zeken iraunkorra ez egiteak azkar hazteko aukera ematen du. Energia gutxiago behar du. Azkarrago haziko da. Bestetik, egur biguina sortzeak adarrak pixka bat luzatu orduko makurtu eta lurreratzea dakar. Lurra ukitzen duenean sustraiak emango ditu, eta bertan, adar hori dela medio amari lotutako pikondo berria haziko da. Horri berari ere adarrak hazi, makurtu, errotu, itsatsi eta landare berriak etorri; bukatzen ez den katea. Pikondoari bakera emanez gero, inguruko jira-buelta osoa harrapatuko luke adarretik sortu-

tako arbola berriz; gero eta zabalago, heda eta heda, pikondo erraldoi bat eta bakarra litzatekeena sortuz.

Horixe da "Na Blanca d'en Mestre". Hazi ahala makurtzera jotzen duten adarrei, ordea, makulua, agai jarri die. Eta agaian sendo oinarrituta adarrak aurrera; eta agai berria eta aurrera. Pikondoak 356 metro koadro azpian hartu arte, ahuntz-talde eta artalde galanten abaro. Arkitektoen ikasgai da. Eraikuntza dela diote. Nik kultura dela diot, 143 agai eusten duten monumentua. 1992an izen hori eman zioten; Europako pikondo handiena omen. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Orain dela gutxi Bizi Baratzea liburuaren oinarritutako didate eta egia esan oso gustoko izan dugu. Etxean ikusi diogun gauza txar bakarra bertako euskera da. Aita ibiltzen da gurean ortuan gehien, eta 70 urteko gizon bizkaitar batentzat, nahiz eta euskeraz hitz egin betidanik, ulertzeko oso zaila da. Bestalde, liburuan ez dut ikusi boniatoari buruzko ezer. Landatu daiteke Euskal Herrian?

Larraitx Aurrekoetxea (Mañaria)

Kaixo Larraitx. Mila esker liburuaren jarraitzaile izateagatik. Euskaraz idazteak arazo hori du: euskalkiak, azpieuskalkiak... Hainbeste izen eta hitz desberdin ditugu gauzei deitzeko... Arazo handia da zein aukeratu erabakitzea.

Boniatoa dela-eta, ez dut ezagutzen inor hemen egiten duenik. Hala ere ziur ondo etorriko dela. Eguzkia eta

beroa maite ditu. Janari asko behar du: sats zaharrez ongarritu lurra jarri aurretik. Arazo bakarra ikusten diot: ongi, oso ongi drainatzen den lurra eskatzen du. Igokaria denez, arbatzea komeniko dela iruditzen zait, baina ez naiz ziur, agian lur gainean bertan ez da ustelduko... Apirilean ereingo nuke, patata bezala, tuberkulu zatia, hamar zentimetro sakon eta 50eko tartearekin, gutxienez.

Tuberkulua bera kontserbatzeko berezi samarra da. Onena ahal den azkarren jatea da.



Boniatoak (Ipomoea batatas).